

iritzia

## "argia": astekari zahar berri bat

Inportantea da "Argia"? Merezi du kanpaina bat? ... Ez dakit, inportantziarena kontu erlatiboa da.

Inportantea al da euskara? ... Bakarririk, pentsatzen hasi eta, ikaragarria irudituko litzaidake "Argia"-rik ez egotea, momento honetan "Argia" gabe geratzea. Ikaragarria, ez "Argia" rengatik, euskararengatik baino. Aldizkari bat baino gehiago ikusi dugu jarotzen eta hiltzen Euskal Herrian, euskaraz nahiz erdaraz. Ez gaitu ikaritzen.

Begien bistan daukagu denok euskararen kinka larria, prentsaren oraingoa bereberki. Baina "Argia" galtzea, uste dut, edozein aldizkari edo agerkari galtzea baino besterik izango litzateke. Beste zerbait adieraziko luke, beste esanahi bat izango luke, garbi-garbi, guztiiontzat. Euskararentzat. Hori denok dakigu.

Gu zer garen, gure zati handi bat "Argia" da. Sinbolioa eta errealitate, historia eta oraina. Hein batetan denok "Argia" gara (zu eta ni behintzat, ieron irakurlea eta idazlea). Euskaltzaleasuna "Argia" da batez ere militantzia, gateria.

"Argia" bizi ala hil, aldizkariaren baten gorabeherak baino askoz gehiago da euskaltzale eta aberzale guztiiontzat.

Zorionez "Argia"-ren oraingo arazoa ez da hainbeste hil ala bizi, nola indartu eta zabaldu eta berri bano.

Oraintxe bertan "Argia" astekari "zaharra" da. Historia —astindutxo, gainera—, tradizioa, linea bat, erakusten duena euskararen alde. Baina "zaharra" batez ere beste adiera batetan: zaharra, borrokaren eta militantiaren alditik datorrelako eta egoera berrian ere militantiaren eta borrokaren aldizkari geratu delako. Militantzia kulturak esan nahi dituen mugatasun guztiekin "zaharra" zentzu horretan ere, pobrea alegia. "Argia"-ri eusten ez dago atzean instituzio berri bat edo. Antzina bezalaxe, militantzia eta sakrifizioa dago.

Urteotan Euskal Herri berri bat sortu da. Institutuzio batzuk. Positiboak? Negatiboak? Dena dela, hor daude. Hor daude, eta bitarteko ugari darabiltela esan genezake, aukeran; eta jende asko joan dela haietan edo hain babespean lanegitara; eta euskaltzaleen artean dife-

rentzia handiak sortu direla egiten duten lanean bertan, beraz... Eta ez genuke esango, euskarak horiek behar-beharrezkoak ez dituenik.

Denek aitortzen dute, halere, euskarak, instituzioak adina, ez gutxiago (ez gutxiago!), militantzia beharko duela aurrerantzean ere. Eta hori da "Argia" militantzia zaharra, jatorra, Euskal Herri berriaren. Militantzia hutsaren fruitua, lehen hala orain. Beharba euskal astekari bat edukitzeko beste modurik ez da izango puska batetan.

Militantzia hutsaz, ordea, astekari bat ezin iritxi liteke, izan behar lukeena izatera. Bestetik, sakrifizioak eskatzea ongi dago, euskararen alde, baina ez dago zergatik beti jende berari eskatu sakrifizioak eta gurutzak.

Orain artean ez dugu instituzio bideak eta militantiako bideak elkartzea lortu, elkarren osagarri izan daitezkeen eta lagungarri. Militantzia Euskal Herri "ofizialetik" kanpo geratu da: hau ez da horren

arrazoiak edo erruak aipatzen hasiteko lekua. Euskal Herri berriak, bere zenbati tresna berri sortuaz, ez du asumitu "Argia" (euskara hutsazko prentsa zahar guztian gertatzen zaiona da). Beraz, militantismoaren merezimendu eta akats guztiekin ibili behar izan du urteotan. Akatsok, besteak beste, oinarriko batetan bil daitezke: estabilitate faltan. Estabilitate ekonomikoaren faltan batik bat. Baina ez pertsonalaren, ez programaren, ez agerketa ritmoaren, ez irudiaren, etab. estabilitate handirik eduki zezakeen, horregatixe.

"Argia"-k egun ilunak eta beltzak ikusi ditu. Hainbat txaiogarrigoa, ekipo gaste berriak, baldin izun ezin iraketsagoetan, aldapan gorz burutu duena. Iraun egin du. Iraun ezetik, ordea, berri ere egin du astekaria. "Argia" zaharra berri ere egin da.

Ez naiz luzatuko "Argia"-ren gorazarretan edo militante kartsuon laudoriotan. Jakiteko gogoia duenak honez gero badaki gaurko

"Argia" zer den: gogorik ez duenari aiferrik da esatea. Egin dutenari baino gehiago, ordea, egin nahi dutenari, begiratzeko eskatzen digute gaur argiatarrak: irautea ez da aski. Militantzia gaitu gabe, estabilitatea lortu behar da. Oinarri ekonomikoa sendotu, irakurleria zabaldu. Gero egitamu berri bat eraiki beharko zaio astekariari, oin sendoen gainean. Euskal Herri osoaren astekaria bihurtu. Militantzia, bai; baina militantzia hutsa ez da ezer, militantzia ere bere tresnak behar ditu.

Uste dut, euskarari bultz egingo diona militantzia izango dela, azkenean; eta "Argia"-ri eutsiko diona ere militantzia izango da. Bizi nahia eta borroka. Baina guztion militantzia, ez leher egin arte jokatuko behar izaten duten betikoena.

"Argia" guztiona izan dadin, guztiok lagundu behar diogu. Euskara indartzeko militantiaren beharra dago; astekari bat behar da euskara hutsan. Bi puntuok onartzen dituenak, berdin da instituzioetan ibili, kanpoan ibili, "Argia"-ri lagundu behar dio egunotan. Astekari militante zaharra astekari berri sendoa izan dadin. Eta beti militantea, noski: militantiaren lanabes eta ezpata.

Jose AZURMENDI

## Zenbait gauzak egunekoak izan behar du.



Ogia prentsa edo esnea: behin behineko artikuluak, egunero kontsumitzekoak, bakar bakarrak balio dute berezko "freskurari" helitzen bazaizkigu.

Hau da esne pastenatuaren sekretua: eguneko esnea, freskoa, bizi-bizia. Higiene eta digeriketarako baldintza hobereak garrantzitzeko. Guztionez pasterizatua prozesu soil eta eraginkorra, 78º. Honela esnearen zapora eta elikadurazko aberastasuna gordetik higieneko garrantia osoz hornitzen da. Pastenatuak bildunko esnean kaltegarriko ernamun posibleak deusezten ditu.

Egunero esnea hartzen baldin baduzu, izan dadila egunekoak, bizi-bizia: esne pasterizatua, poltsakoa

Egunero esnea hartzen baldin baduzu, izan dadila egunekoak, esne pasterizatua.



**Eusko**  
**Jaurjaritzaren**  
**Nekazal**  
**Departamendua**  
**eta Komunitate**  
**Autonomako**  
**Esnegunekoak:**  
**Beyena,**  
**Gurelesa,**  
**Lana,**  
**Ram,**  
**Urbia.**

txutxu-mutxuka

## Teresa Munain, Ullibarri Ganboako amona euskalduna

Teresa Munain, 81 urtekoa, sendoa eta maitagarria, Ullibarri Ganboako amona euskaldun bakarra da. Bere testimonio bitxiarekin, noizbait, Gasteiztik bertan euskaraz mintzatzen zela baieztatzen du honen enenpluak. Teresa bizitza garrantza izan du, lanerako prest beti.

Berrogeita bost urterekin alargun geratu zen, zortzi seme-alabekin. Jaten eman behar. Legutioko inguru guztietan zumea ebakitzen, soroko lanak egiten, beti zerbait egiten. Gaur, ordea, bizimodu patxadatsua egiten du. Orain dela zenbait urtez gero Gasteizen (Bitorixan esaten du berak) bizi da, alaba baten etxean. Nahiz eta batuaren aldekoa ez izan, euskararen aldekoa da dudarik gabe. Txarrena, ia ez duela norekin hitzegiterik, eta, horregatik, berehala erderara pasatzen da.

Teresaren gurasordeak, Zegamakoak ziren. Hortik datorkio, antza denez, euskararen muina. — Nire gurasordeak hiru egunegaz atera ninduten ospizioetik. Gero landara eraman ninduten eta han hazi nintzen, hango mutikoekin.

Hogei urte bete zituenen, Landatik Ganboara joan zen.

— Ba al zen Landan edo Ullibarri Ganboan beste euskaldunik? — Landan, ez, zen inor, baina bai Ganboan. Han zegoen Gatzagako matrimonio bat, eta nire aita ia amak be bai. Geroago nik bakarririk egiten nuen euskaraz, nire Durangoko ama arebakin. Baina hura ere hil zen eta ia bapez, etxien ere ez genuen egiten. Gero Gatzagako matrimonio hori, pantanoa egin zanian, joan ziren Durangora, eta han hil ziren.

— Zer lan egiten zenuen? — Nik?, ba soruan. Uf! nire bizi osoa lantzen pasatu dut. Gaur, ia ez dago andrak lan egiten. Zumea ebaitzen ebili ginen ere, hor Villarealen, gizonekin burruka egiten. Baina Bitorixara etorri nintzianan



Teresa Munain, amon euskalduna

hau, uy! "coser y cantar". Han Ganboan, goizeko ordu batian jekitzen nintzen lana egiteko".

— Gaur egiten al duzu?

— Gaur?, lana?, bai zera, gaur irabazi egiten da, lana daukanak behintzat. Gaur keja asko dauko jendiek. Orain ia ez dago trazik lantzen ibiltzeko.

— Gasteizen norekin hitz egiten duzu euskaraz?

— Hemen gitxi egiten da. Orain nire ahizpa ordezko bat dago hemen bere iloba bategaz eta berearekin egiten dut. Guk beti euskaraz egiten dugu. Bestiak haseratu egiten dira, baina, guk ikasi bai ikasi esaten dugu.

Bikoitz